

**2016KO URRIAREN 27AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zazpia

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJIK
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko uztailaren 28ko akta onartzeko proposamena.

2016ko uztailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ORDENANTZA FISKALEN ERANSKINAK: 2017rako tarifak onartzea:

- Ondasunen higiezinaren gaineko zerga.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- Tasak.

Ezagutzera eman da, hazienda batzordearen proposamena

GAIA.- 2017 urterako Ordenantza fiskalak. Eranskinen eguneraketa

2017 urtean indarrean izango diren zerga, tasa eta tarifak eguneratzeko proposamena:

1.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:

- %0,2050 tipoa ezartzen da bizitegi izaerako lurzoruan kokatutako higiezinentzat.

- Familia ugarien titularren aldeko hobariaz gozatu ahal izateko, 200.000,00 eurotan finkatzen da gehiengo balio katastrala.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Aldeko botoen kopurua abstentzioarena baino handiagoa denez, gehiengo absolutuarekin onartu da.

2.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA:

Udalaren interes berezikotzat izendatzea, horretarako ezarritako hobariaz gozatu ahal izateko, %95ean finkatuz hobari, ondorengo hezkuntza zentroen egiten dituzten obrak: BEASAIN INSTITUTUA BIP, Seaska Haurreskola, Alkartasuna Lizeoa, Murumendi ikastetxea, Andramendi Ikastola, La Salle-San José Ikastetxea, A.E.K.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

3.- TASAK:

a) Zaborra bildu eta ezabatzeko zerbitzuarengatik:

Komertzioetako zaborren atala aldatu eta ondorengoetan finkatu:

KOMERTZIOETAKO ZABORRA:

- a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bokadilo eta plater konbinatu)
550,00 €
- b) Jatetxeak 635,00 €
- c) Supermerkatuak: 460,00 €
- d) Supermerkatu handiak 1.450,00 €
- e) Fruitategiak 460,00 €
- f) Hondakin organikoa sortzen duten
elikadura arloko bestelako dendak. 460,00 €
- g) Harategiak eta Arraindegia (hondarrak, baimena duen
295,00 €
- h) Elkarrekin gastronomikoak : 550,00 €
- i) Sukalde Zerbitzua ez duten tabernak
460,00 €
- j) Hondakin organikoak sortzez dituzten Elikadura arloko dendak
295,00 €
- k) Bestelako dendak, biltegiak
295,00 €
- l) Zerbitzuak
270,00 €
- m) Biltegi handiak, kafetegia, taberna edo jatetxe zerbitzua duten gasolindegia
1.450,00 €

b) Servicio de grúa:

Furgoneta, kamioiak, etab. erretiratzea, zerbitzua burutzen duenaren fakturaren arabera.

c) Ibilgailuen geraleku eta kokagunea

Ibilgailuen geraleku eta kokagunea urteko (taxi eta anbulantziak): 29,50 €

d) Autokarabentzako zerbitzuak:

- Igartzako aparkalekuan ura kargatzeko fitxa: 1,5 €
- Igartzako aparkalekuan argindarra kargatzeko fitxa: 1,5 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

3.- TAXIAK. Taxi-zerbitzuaren 2017ko tarifak.

Ezagutzera eman da Hazienda Batzordearen ondorengo proposamena:

“GAIA.- Taxi-zerbitzuaren 2017ko tarifak.

1.- (AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2017 urterako tarifen onespena eskatu du.

2.- Egindako eskariaren arabera, 2016 urtean indarrean dauden tarifak, igoerarik gabe, mantentzeko proposamena egiten da.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak Udaltzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik. - Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.

Bigarren. - 2017 urtean, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikagarri izango diren ondorengo tarifak onartzea:

	Abiasaria	Ibilitako kilometroa	Itxarote ordua
Tarifa 1*	3,4588 €	1,0828 €	20,6819 €
Tarifa 2**	3,4588 €	1,7269 €	32,5052 €

** Lanegunetan 07:00tik 22:00arte: de 07:00 a 22:00*

*** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan*

Hirugarren. - Goiekiri akordio honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

4.- EIOZ HOBARIA. Eskatzailea: La Salle San José ikastetxea. San Inazio kaleko eraikineko 3. solairuko zoruan egurra jartzeari buruzko obrak.

Ezagutzera eman da, Hazienda Batzordearen ondorengo proposamena:

“GAIA: La Salle San José ikastetxeko San Inazio kaleko eraikineko 3. solairuko zoruan egurra jartzeko obren gaineko sortutako Eraikuntzen gaineko Zergari buruzko hoberi eskaria. (Expteak.: 2016OBME0093).

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hoberia jasotzen du:

%95era bitarteko hoberia, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuen barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hoberiaren ehunekoa Udal Batzarrek onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozialak betetzen dira eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

La Salle San José ikastetxeko San Inazio kaleko eraikineko 3. solairuko zoruan egurra jartzeko obren gaineko sortutako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hoberia onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

5.- LURSAILA ALOKATZEARI BURUZKO KONTRATUA. Maizterra: Vodafone.

Ezagutzera eman da, zerbitzu batzordeko ondorengo proposamena:

“Vodafone enpresak Loinazko ur biltegia kokatzen den Udal jabegoko lur sailean telefonia mugikor zerbitzua eskaintzeko antena instalazio bat du udalak baimendua eta lur sailaren erabilpen kontratu bati lotuta.

Kontratua berritu beharra dago, bost urteko iraupena proposatzen da eta epe hau amaitu ondoren bi aldeetako batek ez badu etetzea eskatzen iraupen berdineko epea luzatuko litzateke.

Kontrato honen iraupena eta luzapen aukera gauzatzeko, legediaren arabera Udal Batzaren akordioa eskatzen du.

Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, Zerbitzu batzordeak Udal Batzari proposatzen dio:

1.- Udalak eta Vodafone enpresaren artean Loinatzko ur biltegiko lur sailean kokatzen den telefonía mugikorreko instalazioa mantentzea eta bost urteko erabilpen kontratua sinatzea.

2.- Bost urteko epea amaitu ondoren, epe berdineko luzapenak sinatzea, aldez aurretik bi aldeetako batek ez badu etetzea proposatzen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-07-21etik 2016-10-22ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2016-07-21etik 2016-10-22ra bitarte emandako Ebazpenak.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

BATZORDEAK

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Venimos detectando desde hace algunos meses que hay alguna disminución de actividad por parte de algunas comisiones, como puede ser la comisión de antolakuntza. Hay temas sobre los que se debería de haber pasado la información a los grupos de la oposición. Nos gustaría saber por qué prácticamente hace dos meses que no se celebra la comisión de antolakutza.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “¿Que temas crees que deberían haber pasado?. Es verdad que en septiembre no se ha hecho comisión pero sabéis que desde finales del año pasado, principios de este año, llevamos trabajando para mejorar y adecuar la organización que tenemos. Ahora llevamos a las comisiones temas sobre los que podemos estar debatiendo sin límite de tiempo sobre la petición de un pivote en una esquina, por ejemplo, y sin embargo no se da cuenta de ninguna licencia de obra mayor o menor. Sabéis que estamos trabajando conjuntamente el hecho de mejorar la forma de organizarnos.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “De momento se debería de haber pasado la información sobre la adjudicación de los seguros y también nos gustaría saber qué pasa con la calle que está enfrente de Ibañez. Han puesto un semáforo, parece que hay modificaciones, pero que yo sepa tampoco se ha dado ningún tipo de información. No sabemos si la propuesta viene de la policía municipal o de algún otro órgano. Lo que si sabemos es que ha habido reuniones con los vecinos, pero nos hemos enterado por carteles informativos que se han puesto en la calle.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Lo de los seguros, ha pasado repetidamente por la comisión. El tema de la zona de Erauskin, es una prueba que se quiere hacer. No es nada definitivo. Es un trabajo que se viene haciendo por la policía municipal, creo que desde la anterior legislatura. Lleva a que los vecinos tengan que facilitar las matrículas para entrar en los garajes, pero es una prueba y se quiere ver si funciona o no. La única zona que nos queda para peatonalizar empezando desde la estación hasta el puente de Malkasko, es justo esa zona y queremos probar a ver si funciona. Que es lo

que genera en la calle S. Inazio, cómo funcionan los aparcamientos de la OTA en zona marrón, etc.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Sumándome a este debate tan interesante que estáis teniendo, komentatu hau ez dela gaia Plenoan komentatzekoa, baina ulertzen dut hemen galdetzea fororik ez dugulako galderak egiteko. Aspalditik salatzen ari gara batzordean husten ari direla. Se vacían de contenido las comisiones y no se hacen. Has puesto dos ejemplos, pero hay mil. Se está confirmando lo que venimos denunciando desde hace tiempo. Has mencionado la comisión de “antolakuntza”. Yo digo lo mismo de la de “servicios”. Se reúne poquísimo y se tratan los temas muy por encima y luego se discuten “en ruegos y preguntas”. Otro podrá decir una tercera y así llegaremos a las once existentes. La de “turismo” no sé ni si se reúne. La de “gazteria” tampoco. Estamos de acuerdo en que hay que replantearse la manera de trabajar y establecer una nueva organización, pero la verdad, ¡tres, veinte o treinta comisiones es igual!. Es un tema de voluntades. Si verdaderamente hay voluntad, se traen los temas y se debaten. Si no la hay, tenemos que venir al Pleno a hacer preguntas que, a mi entender, no son de Pleno. Te entiendo, porque al final, no tenemos ningún foro para el debate.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Berriro esaten dut eta eskertzen dut esatea antolaketa berria behar dela, batzordeetan gauza kuriosoak pasatzen direlako. Nik uste dut funtzionatzen dela eta batzordeetan gaiak pasatzen direla. Egon daiteke, bai frogatan edo intentzioa dagoen zer baitetan hasi eta horren informazioa ez pasatzea ez dakigulako behin betikoz izango den ala ez, baina ez dago inolako intentziorik gauzak ezkutatzeko eta inon bizkarrera egiteko. Beste gauza da informazioetan asmatzen dugun ala ez, baina nik uste dut borondatea ba dagoela. Ziur nago eta zuek ere ziur egongo zarete, hobetzeko asko dugula eta hobetuko dugula.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bukatu aurretik Udalbatza Osoaren izenean, denon izenean alegia, Garbiñe, gure atxikimendua, babesa eta indarra eskaini nahi nizuke. Datozen hilabeteotan gertu izango gara behar duzunerako eta behar baduzu, gure prestutasuna azaltzen dizut.”

DOLAREA PLATAFORMA

“Dolarea Plataformaren” ordezkariak alde z aurretik Alkate jaunak hitza emanda, berak horrela eskatuta, adierazi du aspalditxoan isilik daudela baina ez inaktiboki eta Pleno honetara datorrela Dolarea Hotela kudeatzen duenaren jokaera eta Udalak bere alde jartzen dituen herritarren guztienak diren baliabide publikoak erabiltzeko baimenak salatzer a. Horren adibide, gastrolarerako karabana bide publikoan jartzearena aipatu du.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gai puntualak eta presazkoak direnean, erantzuna ere presazkoa eta puntuala izaten da. Gustatu edo ez lurzoru publikoa okupatzen duenean, berak bere ordainketak eginda, ezin zaio ukatu. Aldiz, zerbait egonkorra bada, batzordetik pasatzen da. Beraz, harrera gunean ohiko eskaerei erantzuna ematen zaie, baina bereziak direnean ez. Jarri daitekeen adibidea da, hiru astetako laranja saltzaileak egin duen eskaera. Arraina saltzen zuen beste bati ere, lehendabizi baiezkoa eman zitzaion eta gero higienikoki baldintza minimoak betetzen ez zituelako atzera bota zen. Niri malgutasun hori ere ez zait gaizki iruditzen, bestela askotan marra

artean jartzen dugu dena eta bakoitzak bere irakurketa egiten du. Ohikoa edo ez, horrelako eskaerak gehiago ere izango dira eta batzuetan asmatuko dugu eta beste batzuetan ez, baina ez pertsona bati begiratzuz gaudelako laguntzeko edo izorratzeko.”

Eztabaida Dolarea Plataformaren” ordezkariaren eta Alkatearen artean jarraitu egiten da, Dolarea Hotela kudeatzen duenak emandako sukaldaritza ikastaro bati buruz.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Lurzoru publikoa denez, denok erabili dezakegu, baina dugun zalan-tza ondorengoa da: batzordeen batetan komentatu zen, zituen zorrak zerbitzuen bidez ordaintzeko aukera ematea. Guk espero dugu horrelakori atzetik ez egotea. Gaur arte ez dugu informazio gehiagorik jaso gai honen inguruan. Guk esan genuen ez geundela ados zerbitzu bidez ordainketak egitearekin, baina ez dakigu nola geratu zen. Dagokiona ordainduta ez luke erabiltzeko arazorik behar.”

Garbiñe Zurutuza Beasaingo EH BILDUKo zinegotzi andreak galdetu du, ea Igartza multzo monumentala kudeatzearen ondorioz utzitako zorrak ordaindu zituen.

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “Gu sartu ginenetik bere zorra erdira jaitsi zen, zakurra bezala bere atzetik ibili ginelako jakiteko zer itzultzen zuen eta zer ez. Itzuli ez zituenekin komentatu zen zorra estaltzeko berak San Martinen emango zuela hamaiketakoa.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Hori Gobernu Batzordean adierazi zen, desadostasuna azaldu zen, gobernu batzordeko kideek ere esan zuten horrekin ez zeundela ados eta nik egin nuen komentarioa izan zen: orduan nik hemendik aurrera nire zorrak oinetakoekin ordainduko ditut. Hori esan nuen pentsatzen dudalako herri honetan denak eskubide berdinak izan behar ditugula. Batzorde horretan esan zen horrelakorik ez zela egingo. Hori oso presente dudan gaia da, arraroa egiten zaidalako. Dena dela garbi utzi guk ez dugula inoren kontra edo alde egitekorik, baizik eta berdintasuna bilatzearen aldeko besterik ez garelara.”

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “Horrekin batera gure batzordean ere komentatu zen, berak bere momentuan aurkeztutako fidantza ez zitzaiola itzuliko. Uste dut zorra fidantzaren kopururaino iristen zela. Buruz ari naiz. Ez nago ziur.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik esango nuke horrelako zerbait egiteagatik ordaindu ere ez zaiola egiten.”

Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV): “Azaroaren 5ean herriko bazkaria antolatu behar da. Guk herriko beste sukaldariekin kontsultatu eta gero, ezetza jaso ondoren, ez dugu beste irtenbiderik. Hori antolatze-ko bera bakarrik geratu zaigu, baina horren ez du esan nahi Udalaren zerbitzua bat denik.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Buelta gehiago eman gabe, nik eskatuko nukeena da batzorde batetan informazioa ematea.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari hau naizen honek, akta idatzi eta sinatu dut.